

UPV/EHUn Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiriko Probak (2023-2024)

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu dagokion letra ariketa honen amaierako (9. orrialdeko) erantzun-taulan bakoitzari. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

1. *Bizilagun etsaituak adostasun batera iritsi _____ zurrumurrua dabil. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) direlakoaren
- b) direlaren
- c) direnaren
- d) direlako

2. *Lan guztietan lagunduko dizut, _____ atsegingarrietan, _____ nekagarrietan. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) bai / baita
- b) hala / nola
- c) zein / nahiz
- d) Ø / bai

3. **Esaldi hauen artean, zein da OKERRA?**

- a) Istripua gertatu da autopistan, bi zauritu izan direlarik.
- b) Bideokonferentziaz hitz egiten ari ginelarik, konexioak huts egin digu.
- c) Hantxe agertu zaigu, kapela mexikarra buruan duelarik.
- d) Eta, egitekoak amaitu ditugularik, goazen parrandara.

4. **Aukeratu ezazu egokiena:**

- a) Asunek, menditik zetorrena, ez ninduen agurtu.
- b) Asun, menditik zetorrela, nire laguna da.
- c) Asun menditik zetorrela erori zen.
- d) Asun, agurtu ninduenak, menditik zetorren.

5. *Langileek ni ordezkari hautatuko _____, nik ez _____ huts egingo. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) banindute / nieke
- b) banindu / nituzke
- c) balidate / nieke
- d) banindukate / nuke

6. *Gonbita _____ igorri zion, ez idazkariak. Zein da aukera zuzena?*

- a) zuzendariak bera
- b) zuzendari berberak
- c) zuzendari berak
- d) zuzendariak berak

7. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Goiz dabiltz gaur zure lagunak.
- b) Goiz dabiltzate gaur zure lagunak.
- c) Goiz dabiltza gaur zure lagunak.
- d) Goiz dabiltza gaur zure lagunak.

8. *Noiz da ekitaldia?* Zein erantzun dago zuzen idatzita?

- a) Ekainak 6an, gaueko 9:30etan.
- b) Ekainaren 6an, gaueko 9:30ean.
- c) Ekainaren 6ean, gaueko 9:00etan.
- d) Ekainak 8, gaueko 9:15etan.

9. Esaldi hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) Pena merezi du filma ikustea.
- b) Merezi du filma ikustea.
- c) Merezi du ikustera joatea filmak.
- d) Merezi du filma ikustea.

10. *Gaur egungo krisia ez dugu herritar xumeok eragin; _____ , guk ez dugu kaltea zertan ordaindu.* Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) hain zuzen ere
- b) hala ere
- c) izan ere
- d) horrenbestez

11. *Lorontzia buru gainean erori zitzaion eta _____ erori zen.* Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) porru eginda
- b) lur jota
- c) ziplo
- d) di-da

12. *Oraindik ere ez dut argi joango _____!* Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena euskara batuan?

- a) banaiz
- b) banaizen
- c) naizen
- d) naizenik

13. _____ *baliabide gehiago izan, _____ gehiago gastatzen dugu.* Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) Gero eta / gero eta
- b) Orduan eta / orduan eta
- c) Gero eta / hainbat
- d) Zenbat eta / orduan eta

14. *Zaude lasai, ez _____ inori esango!* Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) diodala
- b) badiot
- c) diot eta
- d) diodan

15. *Zu ohartzerako hamaika lagun ohartuko dira.* Nola esan daiteke beste era batera?

- a) Denok bateratsu konturatuko zarete.
- b) Lehenago konturatuko zara zu.
- c) Zu bezain laster konturatuko dira besteak ere.
- d) Jende asko konturatuko da zu baino lehen.

16. *Jo eta su _____ ekologistek lanean.* Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) ari ziren
- b) ziharduten
- c) zirauen
- d) zebiltzan

17. *Izandako haserrealdi hartan _____.* Bete ezazu hutsunea.

- a) elkarri hil zioten
- b) elkar hil ziren
- c) bata besteari hil zioten
- d) elkar hil zuten

18. *Aldeko boto gehien atera zuena izendatu dute _____.* Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) arduraduntzat
- b) arduradun bezala
- c) arduraduna
- d) arduradun

19. *Txostena berehala bukatzeko presioa egiten ari zaizu zuzendaria eta ez du akatsik izatea nahiko, noski.* Zer erantzungo zenioke gustura?

- a) *Azkar eta ondo, usoak began.*
- b) *Zozoak beleari, ipurbeltz.*
- c) *Nolako egurra, halako espala.*
- d) *Gogoko tokian, aldaparik ez.*

20. *Planaren _____ estrategikoetako batean aurreikusita dago bide-segurtasunari heltzea, istripuen aurreko prebentzioari bereziki.* Zein da aukera zuzena?

- a) ildo
- b) lugin
- c) hautu
- d) funts

21. *Epaileak hartu duen erabakiaren inguruan sekulako_____ sortu da. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) kiratsa
- b) zalaparta
- c) erantzukizuna
- d) erronka.

22. *Esaldi hauen artean, zein EZ da egokia euskaraz?*

- a) Honezkero Oslon izango da.
- b) Honezkero Oslora iritsiko zen.
- c) Honezkero, Oslotik itzultzen ari naiz.
- d) Honezkero Oslora iritsia behar du.

23. *Nik_____ da ordenagailu hori. Bete ezazu hutsunea.*

- a) daukadan baino hobea
- b) daukadana bezalakoa
- c) daukadana bezala
- d) daukadan bezain ona

24. *Auzoan baditugu arazo batzuk, zuk_____ . Bete hutsunea.*

- a) ezagutzen dituzula
- b) ezagutzen dituzunak
- c) ezagutzen duzunak
- d) ezagutzen baitituzu

25. *Zuek mutu _____ , laster konturatu ginen non zeundeten gordeta. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?*

- a) egon ere
- b) egonda ere
- c) egoteagatik
- d) egotearren

26. *Usoak ez dira nire gogokoak: are gehiago, _____ . Bete hutsunea.*

- a) beldurtzen didate
- b) beldurra ematen naute
- c) beldur diet
- d) beldur naute

27. *Joan den hileko aldizkarietan argitaratu zen. Zeinetan diozu? Zein da erantzun zuzena?*

- a) Joan den hilekoetan.
- b) Joan den hilekoan.
- c) Joan den hilerokoan.
- d) Joan den hilekotan.

28. Gure hitzari eutsiz, orain lotuko_____ txosten horiek idazteari. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) dizkiogu
- b) diogu
- c) gatzaizkio
- d) dugu

29. Esaldi hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) Nonahi topa daitezke gaur egun maukak.
- b) Lagun batzu etorriko dira laster gurera.
- c) Armairuaren goikaldean daude izarak.
- d) Zu ezik, denok izan ginen bileran.

30. Lan eskaintza bi izan ditu, eta azkenean _____ aukeratu du. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) Bizkaiko Foru Aldundiakoa
- b) Bizkaiko Foru Aldundikoa
- c) Bizkaiaiko Foru Aldundikoa
- d) Bizkaiaiko Foru Aldundiakoa

31. Aukera hauen artean, zein da kalko egokia?

- a) Bilera Donostiako Miramar jauregian ospatu zen.
- b) Neska-mutilen artean ematen dira liskar gehienak.
- c) Jokin *Txapas* bezala ezagutzen dugu auzoan.
- d) Gaurkoa bilera erabakigarria izango da.

32. Produktua akastuna bada, saldu edo _____ duen enpresak obligazioa izango du konpontzeko, ordezkatzeko edo ordaindutako dirua itzultzeko. Zein da zuzena?

- a) arbuiatu
- b) ekoitzi
- c) ustiatu
- d) murriztu

33. Honako hitz bikote hauen artean, zeinetan EZ dago sinonimorik?

- a) Zuhur, zeken.
- b) Igaro, iragan.
- c) Zuhur, zikoitz.
- d) Apeta, makal.

34. Honako aukera hauetatik zein dago ondo idatzita?

- a) Ehuneko haundia.
- b) Portzentai altua.
- c) Portzentaia bajua.
- d) Portzentaje handia.

35. Nola idazten da 5.764 zenbakia?

- a) Bost mila zazpiehun eta hirurogeita lau.
- b) Bost mila zazpirehun ta hirurogeitalau.
- c) Bosmila zazpiehun hirurogeita lau.
- d) Bost mila zazpiehun eta hirurogei eta lau.

36. Honako hauetatik zein dago ondo idatzita?

- a) Gidari hasi berriek abiadura muga dute?
- b) Prentsa aurrekoan gezurra esan du politikariak.
- c) Nazioarteko erakundea da NBE.
- d) Iganderarte ez naiz itzuliko.

37. Lehengo eguneko istripuan lau _____ eta bi _____ zituen. Zein da hutsuneak betetzeko aukera zuzena?

- a) saihets / hortz / hautsi
- b) sahietz /hortz / hautzi
- c) saihets / ortz / autsi
- d) saihetz /hortza / autzi

38. Hitz zerrenda hauetan, zein dago zuzen idatzita?

- a) Aharrausia, harrapatu, hilerria
- b) Gauz bat, anai bat, umekeria bat
- c) Institutoa, modelua, sekretua
- d) Iparraldea, pakea, alperrik

39. Eleberria aurten argitaratuko duela zioten, ezta? _____ idazleak orrialde bat ere ez duela idatzi! Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) Ba, kontua da
- b) Ba, hara non
- c) Ba, zer da kontua
- d) Ba, kontuak kontu,

40. Nirekin zintzoa izan da, eta _____. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) zuekin ere bai
- b) ere bai zuekin
- c) ere zuekin
- d) baita ere zuekin

41. Esaldi hauen artean, zein da egokiena?

- a) Banatzen ditut azterketak, eta mesedez zaudete isilik hemendik aurrera.
- b) Gurean ez dago hainbeste luxu hotelean bezala.
- c) Laster ezkontzekoak dira.
- d) Etxe hauek mugikortasun arazoak dituztenentzat prestatutak daude.

42. Garaiz iristen ez bazara, ez duzu izango _____. Bete ezazu hutsunea.

- a) bizikleta non uztekorik
- b) bizikleta non uzteko lekurik
- c) bizikleta non uztea
- d) bizikleta non utzirik

43. Hiria utzi eta _____ itzuli behar dugu. Bete ezazu hutsunea.

- a) izadiarengana
- b) izadiagana
- c) izadira
- d) izadiara

44. Esaldi hauen artean, zein da zuzena?

- a) Lau pertsonentzako otordua prestatu dut.
- b) Lau pertsonentzako otordua prestatu dut.
- c) Lau pertsonarentzako otordua prestatu dut.
- d) Lau pertsonentzat otordua prestatu dut.

45. Gure esker ona nahi badute, bete _____ gurekin dituzten konpromisoak. Zein da hutsunea betetzeko aukera zuzena?

- a) dezatela
- b) bezate
- c) ditzatela
- d) bitez

46. Esaldi hauetatik, zein dago ondo idatzita?

- a) Zer egin guztiak bere eskuetan usteko esan zion Martak.
- b) Sartagina sutan jarri orduko, olioak irakiten hazi zen.
- c) Botika hari esker berehala suspertu zen gaixoa.
- d) Sama guztia bizkarrean hartuta habiatu zen mendira.

47. Honako hitz elkartu hauetatik, zein dago OKER idatzita euskara batuan?

- a) Giza-baliabideak.
- b) Itsaslapurrak.
- c) Erdi Aroa
- d) Behin betiko.

48. Honako hitz elkartu hauetatik zein dago ondo idatzita?

- a) Aiton-amonak.
- b) Zirimiria.
- c) Zehatz mehatz.
- d) Doi doi.

49. Esaldi hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) UPV/EHUko irakasleen % 65 neurri horren aldeko dira.
- b) Ibaiaren emaria 40 m³ segundoko da.
- c) Lehen korrikalariak 15 seg.ko denbora atera dio bigarrenari.
- d) Herriarretatik %2ak bakarrik agertu du neurriarekiko adostasuna.

50. Esaldi hauen artean, zein dago zuzen idatzita?

- a) BEZa 80. hamarkadan ezarri zen gurean, eta 1992 urtean izan zen BEZen lege-aldaketa nagusia.
- b) BEZa 80eko hamarkadan ezarri zen gurean, eta 1992.ean izan zen BEZaren lege-aldaketa nagusia.
- c) BEZa 80ko hamarkadan ezarri zen gurean, eta 1992. urtean izan zen BEZaren lege-aldaketa nagusia.
- d) BEZ 80ko hamarkadan ezarri zen gurean, eta 1.992an izan zen BEZren lege-aldaketa nagusia.

AUKERA ANITZEKO GALDERAK: ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu arretaz hiru testu hauek. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galderak dituzu. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra, eta adierazi erantzun zuzenari dagokion letra hiru testuen ondoren (16. orrialdean) dagoen erantzun-taulan. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

1. TESTUA:

Downen sindromea eta alzheimerra

Martxoaren 21a Downen sindromearen nazioarteko eguna da. Hain zuzen, 21 trisomia da Downen sindromearen jatorria kasuen % 96an; alegia, 21 kromosoma-parea izan beharrean, hiru kromosoma dituzte. 3, 21.ean; horregatik da martxoaren 21ean.

Zenbaki honetako elkarrizketatu nagusiak, Miren Altuna Azkargortak, ekarri dizkigu gogora bai eguna, bai arrazoia. Altuna ez da genetikaria, neurologoa baizik, eta alzheimerrean dago espezializatuta. Gaitz horri buruz aritu zaigu elkarrizketan, eta, nahiz eta azaldu duen guztia den azpimarragarria, zenbait ideia bereziki esanguratsuak dira.

Hasteko, argi eta garbi azaldu du dementzia ez dela zahartzearen ondorio zuzena; hortaz, kasu gehienak alzheimer-kasuak dira. Bestalde, diagnostikoa dementzia-fasea hasi aurretik egitearen garrantzia nabarmendu du, baita bizi-ohitura osasuntsuen garrantzia ere. Ikerketaz ere hitz egin du, eta itxaropentsu aritu da odolean diagnostikatzeko aukeraz eta garatu diren botika berriez.

Aurrerapausoak ez ezik, hutsuneak ere aipatu ditu, eta ezkutuan geratzen den populazio-talde bat atera du itzalpetik: Downen sindromea dutenak. Izan ere, haien bizi-itxaropena gainerakoena baino 20 urte laburragoa da, eta alzheimerra dute lehen heriotza-kausa. Are gehiago: ziurra da Downen sindromea duen pertsona batek alzheimerra garatuko duela nahikoa urte bizi bada.

Hori, izatez, oso gogorra bada ere, azaldu du ezen, aurreikusgarria denez, fase preklinikoan has daitezkeela tratatzen, eta aurrerapauso handiak eman direla. Gainera, haien arazoa da, batez ere, amiloide gehiegi sortzen dutela. Eta botika berriek amiloidea desagerrarazten dute; uste izatekoa da onura handia ekarriko dietela.

Aldizkarian ez dira sartu esandako guztiak, baina saiatu gara funtsezkoena jasotzen, uste osoa baitugu gizarte osoari egiten diola mesede horretaz jabetzeak. Helburu hori izaten dute nazioarteko egunek ere. Balio dezala martxoaren 21ak aldizkaritik zabaldu nahi dugun mezua indartzeko, eta alderantziz.

Ana Galarraga Aiestaran/Egoitz Etxebeste Aduriz
Elhuyar (2024) ATARIKOA (moldatua)

GALDERAK:

1. Testuaren arabera, zein baieztapen da egia?

- a. Downen sindromearen nazioarteko eguna martxoaren 21a izatea ausaz hautatu da.
- b. 21 trisomia da Downen sindromearen nazioarteko egunaren jatorria.
- c. Downen sindromearen eragile nagusia 21 trisomia delako da martxoaren 21a haren nazioarteko eguna.

2. Aldizkariaren atarikoaren egileek diotenez,...

- a. Miren Altuna Azkargortak gogorarazi du efemeridea, neurologoa delako.
- b. elkarriketatuak alzhemerrari buruzko azalpenak eskaini ditu zenbaki honetan, batzuk oso esanguratsuak.
- c. Miren Altuna Azkargorta nagusia da eta gogora ekarri dizkigu zenbaki honen eguna nahiz arrazoia.

3. Hasteko, betiere artikulugileen esanetan, Miren Altuna Azkargortak...

- a. ukatu egin du dementzia zahartzearen ondorio zuzena izatea.
- b. bizi-ohitura osasuntsuen diagnosia nabarmendu du.
- c. ikerketek diagnostikoan eta botika berrien garapenean izandako arrakasta nabarmendu du.

4. Ziurtasunak laburbilduz,...

- a. Downen sindromea dutenak itzalpetik atera dituzte.
- b. Downen sindromeak eta alzhemerrak eragindako heriotzak lotura estua dute.
- c. pertsona batek alzhemerra garatuko du Downen sindromea badu.

2. TESTUA:

Oihana

Astebeterako kontratua egin zidaten. Kuriosoa da astebeterako lan-kontratua; kontratu bat delako, enplegu bat, eta Gizarte Segurantzaz kontatuko dizuna, baina zer gizarte eta zer segurantza, zer lan egin daiteke ganoraz astebetez? Pentsatzen hasten naiz eta asko otutzen zaizkit. Zuriñek bi astean bost kontratu izan zituen ospitalean. Oraindik ere antzera dabil. Aurrekoan pozik zegoen hiru hilabeteko kontratu bat lortu zuelako, edo egin ziotelako, edo eman. Ez dakit zein aditz jarri behin-behinekotasunari. Zuriñek azaltzen digu tarteka kontratuen afera, nola aurtengo oposizioek ez duten balioko lau urtera arte gutxienez, nola oraindik ez dituzten kontuan hartu *nik-ez-dakit-noizkoak*, nola agintzen dutenen arabera den. Nik ulertu nahi dut laguna, eta sistema, eta Osakidetza, eta begiak zabal-zabal jartzen natzaio begira, baina ikustea lortzen dudana bakarrik Zuriñe da, buruan zapiak, lanerako bata urratuta, eta ileak txima. Kontratuez hitz egiten duten aldiro Tarzanen antza hartzen diot, eta hortxe irudikatzen dut liana batetik bestera, AUAUAUAA! Oihana da lan-mundu hau.

Maialen Akizu
Berria (2024)
(moldatua)

GALDERAK:

5. Testuaren arabera, zer enuntziatu da OKERRA?

- a. Maialen Akizuk bere eskarmentua du abiapuntu artikuluan eta lagun batenarekin alderatzen du.
- b. Artikulugileari bitxia eta, aldi berean, ohikoa iruditzen zaio lan-kontratu laburren kontua.
- c. Lagun batek bere ibilbide profesional prekarioaz kontatutakoa baliatzen du artikulugileak lan-mundua kritikatzeko.

6. Maialen Akizuk ez du ulertzen...

- a. astebeterako lan-kontratu batek Gizarte Segurantzaz kontatzea.
- b. zer konpon dezakeen astebeterako lan-kontratu batek.
- c. lagunak hiru hilabeteko kontratu bat lortu izana.

7. Baieztapen hauetatik, zein da egia artikulugilearen begietara?

- a. lagunak oso gutxi zaintzen du bere itxura.
- b. laguna, sistema eta Osakidetza –denak– daude maila berean.
- c. lagun gaixoa da, sistemaren erdian harrapatua, biktima nagusia.

3. TESTUA:

Irakasleek (ere) aurreiritziak dituzte eta ikasleen kalifikazioetan eragiten dute

Ez da gauza berria: baldintza sozioekonomiko zailagoa duten familietako ikasleek oztopo handiagoak izan ohi dituzte hezkuntza ibilbidean aurrera egiteko. Kontua da joera hori zenbateraino elikatzen dugun kontziente edo inkontzienteki, hasieratik aurreikusiz (eta transmitituz) hala izango dela.

Irakasleen aurreiritziak ebaluazioan, ikasleari atxikitutako estatusaren arabera ikerketan nabarmendu dute, ebaluatzerakoan, bi faktorek eragina dutela. Batetik, ikasleak gelan duen jarrerak. Irakasleek ikasleari nota baxuagoa jartzera jotzen dute jarrera desegokia badu, eta portaera hori lotzen dute jatorri migratzaileko haurrekin eta baldintza sozioekonomiko kaskarragoa dutenekin. Kurioski, aldi berean, jatorri migratzaileko ikasleei nota jartzean onberagoak direla ere antzeman da ikerketan, hizkuntzarekin moldatzeko zailtasunak izan ditzaketela ondorioztatzen baitute. Bestetik, eragina du notan beste aurreiritzi batek ere, kapital kulturalak. “Idatzian ikasleak telebistako *reality show* bat aipatzen badu nota txikiagoa jasoko du Monet margolariaren koadro bat aipatzen badu baino, eta hori kezagarria da”, diote ikerketaren egileek.

Nola eta zeren arabera ebaluatzen den eta ebaluazio horretan gizartean dauden eta irakasleek ere badituzten aurreiritziek zein eragin duten eztabaidatzea du helburu azterketak.

Irakaslegaiari aurrera begirako espektatibez galdetuta, ondorioa da arrakasta akademikorako aukera gutxiago ikusten dutela jatorri migratzaileko ikasleen eta etxean egoera sozioekonomiko zaila dutenen artean. Eta, jakina denez, espektatibek ikasleengan duten eragina handia da, bakoitzarengan jartzen duten espektatibaren baitan ere badagoelako arrakasta, eta, beraz, inportantea da ikasle “on” eta “txar” gisako rolen aurrean, irakasleen diskurtsoak aztertzea: espektatibak nola adierazten dituzten eta ikasleengandik zer espero duten.

Hezkuntza, arrakala sozialak birproduzitzen?

Errealitatea da ikasle batzuek eta besteek etxetik dakarten “motxila” ez dela berdina, baina hezkuntza sistema saiatzen da motxila horiek orekatzen, ala gizarteko zapalkuntza eta arazoak birproduzitzen ditu? “Diskurtsiboki denok diogu eskolaren funtzioa dela egoera hori orekatzea eta iraultzea, baina esango nuke gure egitekoekin hainbat kasutan egoera mantentzen dugula eta pribilegioak ez dituzten umeek segurtasun falta handiagoa dutela eskolan, dituzten beharrak ez direlako hain erraz onartzen”, zioen Agurtzane Martinez irakasleak, ARGIAN.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argia (moldatua)

GALDERAK:

8. Testuan aipatutako ikerketari dagokionez, zein baieztapen da egia?

- a. Aipatutako ikerketan nabarmendu dute familiaren ezaugarri sozioekonomikoek baldintzatzen dutela ikasleen hezkuntza ibilbidea.
- b. Jatorri migratzaileko haurren ebaluazioa dela eta, paradoxa bat nabarmendu dute aipatutako ikerketan.
- c. Ebaluatzerakoan, bi faktorek eragiten dutela nabarmendu dute aipatu ikerketan: jarrerak eta hizkuntzarekin moldatzeko zailtasunak.

9. Irakaslegaiari aurrera begirako espektatibez galdetuta,...

- a. ukatu egin dute ikasle-talde kalteberenek arrakasta akademikorako aukera izatea.
- b. badakite ikasleengan eragin handia dutela.
- c. azken ondorioa da irakasleen diskurtsoak aztertu behar direla baldintzatu dezaketelako ikasleen arrakasta.

10. Hezkuntza eta arrakala sozialak direla eta, zein baieztapen da egia?

- a. Ikasleen arteko arrakala soziala ukaezina da eta ez dago argi hezkuntza sistemak orekatzen duenik.
- b. Agurtzane Martinez irakaslea baikorra da hezkuntza sistemak arrakala soziala orekatzeko duen egitekoaz.
- c. Agurtzane Martinez irakasleak ez du zalantzarik: hezkuntzak arrakala sozialak birproduzitzen ditu.

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10

3. ARIKETA: IDAZLANA

Azpiko taulan aukeran dituzun gaietako BAT hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osotik), eta gutxienez 300 hitzeko idazlan bat egin, euskara batuan. Unibertsitateko irakasle-talde baten aldizkarirako (A aukera) edo eskolak emateko apunte bezala (B aukera). Nahitaezkoa da ongi lotzea aukeratutako gaiari.

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Arkitektura eta hirien suspertzea	Etorkizuneko etxebizitzak nolakoa beharko luke?
Arte	Arkitektura erromanikoa	Arte-ikasketak
Biologia	Bioetika	Munduaren berotzea eta izaki bizidunak, landareak eta animaliak
Ekonomia	Barne Produktu Gordina (BPG)	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)
Filologia	Hizkuntza-familia nagusiak eta tipologia linguistikoa	Diglosia
Filosofia	Erdi Aroko filosofo islamiar eta juduak	Makiavelo eta politikaren eredu berria
Fisika	Uhin elektromagnetikoak	Zer da fisika kuantikoa?
Geografia	Gaur egungo munduaren geografia ekonomikoa. Nola dago banatua eta antolatua mundua?	XXI. mendeko migrazioak
Geologia	Baliabide naturalak: berriztagarriak eta ez-berriztagarriak, motak...	Lurraren egitura: ezaugarriak, bulkanismoa, magnetismoa...
Gizarte-zientziak	Marxismoa eta anarkismoa	Genero-arazoak gaurko gizartean
Heziketa fisikoa	Aisialdirako jarduera fisikoa eta kirol-jarduerak	Jarduera fisiko inklusiboa
Historia	Frantziako Iraultza	Matxinadak Euskal Herrian
Informatika	Algoritmoen konplexutasuna	Sare sozialak (Facebook, twitter,...)
Informazioa	Gizonaren irudia publizitatean	Konpara itzazu irratia eta telebista
Kimika	Laborategiko lan- eta segurtasun-arauak	Lotura kimikoa
Kriminologia	Biziarteko kartzela-zigorra	Bide-segurtasuna: kriminologiaren ekarria
Lan-harremanak	Laneko segurtasuna eta osasuna	Sindikatuak
Matematika	Zenbaki konplexuak	Multzoak, aplikazioak eta erlazioak
Osasuna	Kirola osasun-iturri: egia ala topikoa? Nola eta zer neurritan? Kirola ala ariketa?	Beldurrak eta fobiak: motak, arriskuak, sendabideak
Pedagogia	Hizkuntza eta Hezkuntza Euskal Herrian	XXI. mendeko irakaslea: rol-aldeketa
Psikologia	Psikologoa eta psikiatra: aldeak eta parekotasunak	Indarkeria eskolan
Teknologia	Atomoen fusioa eta fisioa	Robotika. Zer dira robotak? Zertan erabiltzen dira? Robot adimentsuak
Zuzenbidea	Kolonia izandako herrien autodeterminazio-eskubidea	Nazioarteko Zuzenbidea

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA DA**

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA: **NAN-**
zenbakia:

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)	EZGAI (< 32)	

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)	EZGAI (< 6)	

Idazlana

GAI	EZGAI
-----	-------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZGAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZGAI
-----	-------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea

UPV/EHU-KO EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO

Azterketaria:

(Markatu X batekin azken zutabea zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	jokera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	jokera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: